



Europako Batzordearen proposamena, 2021-2027 Urte Anitzeko Finantza Esparruan integratutako Berreskuratze Funts bat sortzeko

Europako Batzordeak maiatzaren 27an aurkeztu zuen bere suspertze edo berreskuratze Plana, susperraldia jasangarria, zuzena, inklusiboa eta bidezkoa izan dadin EBko estatu kide guztientzat. Batzordeak proposatzen duena da berreskuratze Tresna edo Funts berri bat sortzea, *Next Generation EU* izenekoa, 750.000 milioi eurokoa. Funts hori Europako Erkidegoaren 2021-2027 epe luzerako aurrekontuan edo urte anitzeko finantza-esparruan (MFF) integratuko da, eta 1,1 bilioi euro aurreikusten dira horretarako. Batzordeak proposatzen duen zuzkidura, guztira, 1,85 bilioi eurokoa da: 750.000 milioi euro *Next Generation EU* Tresnatik + 1,1 bilioi 2021-27 MFFtik. Era berean, Batzordeak 2020rako egokitutako lan-programa aurkeztu du, Europaren susperraldia eta erresilientzia bultzatzeko beharrezko ekintzak lehenetsiko dituen.

Plan honek bat egiten du baldintza onuragarrietan egindako maileguen paketearekin, 540.000 milioi euroko balioarekin, Europar Batasuneko liderrek apirilaren 23an onartua. Mailegu horiek hiru segurtasun-sareren bidez bideratuko dira langileentzako (SURE - aldi baterako laguntza, 100.000 milioi eurorainoko larrialdietan langabezia-arriskuak arintzeko), enpresentzat (Europako Inbertsio Bankuaren Taldeak maileguetan 200.000 milioi eurorainoko berme-funts bat sortuko du, batez ere enpresa txiki eta ertainentzat, EB osoan) eta estautentzat (Egonkortasunaren Europako Mekanismoak 240.000 milioi euroko maileguak eskuragarri jarriko ditu).

Batzordeak uste du neurri guztiek 3,1 bilioi euro mobilizatzea ekarriko dutela, hau da, EBko BPGren % 22,1 bezainbestekoa, bi milioi enplegu sortzea ahalbidetuko duena.

Gainera, funtsak ahalik eta lasterren eskuragarri jar daitezten premiarik larrienei erantzuteko, Batzordeak proposatu du gaur egungo 2014-2020 MFF aldatzea, finantzaketarako 11.500 milioi euro gehiago eskuragarri egon daitezten 2020an.

Next Generation EU Tresna nola finantzatzen den

Ahalegin nazionalak osatuz, berreskuratze-funtsak bidezko susperraldi sozioekonomikoa sustatu nahi du, merkatu bakarra indartu eta biziberritu, baldintza-berdintasuna bermatu, eta premiazko inbertsioak babestu, bereziki trantsizio berde eta digitaletan. Tresna 2024ko abenduaren 31ra arte egongo da eskuragarri.

Next Generation EU Tresna finantzatzeko, Batzordeak gehienez 30 urteko epemuga duten bonuak jaulkitzea aurreikusten du, A hirukoitzaren kalifikazioak interes-tasa txikiak bermatzen dituela aprobetxatuz. Horretarako, baliabide propioen gehieneko muga EBko Errenta Nazionalaren % 2ra igoko du aldi baterako, eta horrek, praktikan, bere marjina zabalduko du bonuak aurrekontuaren kargura jaulkitzeko, herrialdeek orain Erkidegoko diru-kutxara egin behar duten ekarpena igo beharrik izan gabe. Zor



nagusiaren eta zor horren interesen itzulketa 2028tik 2058ra bitartean egingo litzateke, eta hori ordaintzeko, aurrekonturako diru-iturri berriak sartzea proposatu du Batzordeak. Zehazki, bost zerga proposatu ditu: mugako karbono-tasa bat (urtean 5.000 eta 14.000 milioi euro artean bilduko lirateke), isurpenen merkataritzarako Europako sistema handitzea (10.000 milioi euro bilduko lirateke), tasa digital bat (1.300 milioi) eta EBko enpresa handiei zerga bat (10.000 milioi). Bosgarrena plastikoaren gaineko zerga izango litzateke (3.000 milioitik 9.000 milioira), zein nahiz eta Batzordearen dokumentuetan ez egon, presidenteak Batzordeari eta aurrekontuen komisarioak aipatu duten. Bere irismenaren arabera, urteko bilketa 29.300 milioitik 44.300 milioira bitartekoa izango litzateke.

*Next Generation EU*ren bidez bildutako funts guztiak EBren programen bidez bideratuko dira, 2021-27 MFF berrituan. 750.000 milioi euro horietatik, 500.000 milioi itzuli beharrik gabeko laguntzak dira, eta 250.000 milioi euro, maileguak.

Lehen diru kopuruak herrialdeetara udazkenean iristea nahi du Batzordeak, eta, horretarako, estatuburuak eta gobernuburuak ados jarri behar dira uda baino lehen. Horrek 11.500 milioiko paketea prestatzeko aukera emango lieke, egungo 2014-2020 MFFa aldatuz eta urteko azken hiruhilekoan zorraren lehen jaulkipena prestatuz.

Next Generation EU Tresnaren hiru zutabeak

Next Generation EU delakoarentzat bildutako 750.000 milioi euroak hiru zutabetan inbertituko dira:

1. Estatu kideei inbertsioak eta erreformak egiten laguntzea (655 milioi)

- **560.000 milioi euroko Suspertze eta Erresilientzia Mekanismo** berri batek finantza-laguntza eskainiko du inbertsioetarako eta erreformetarako, bereziki trantsizio ekologiko eta digitalarekin eta ekonomia nazionalen erresilientziarekin lotuta, EBren lehentasunekin lotuz. Mekanismo hori Europako seihilekoan txertatuko da. **310.000 milioi euro arteko diru-laguntzen** gutun-azal bat izango du, eta **250.000 milioi euro arteko maileguak** eman ahal izango ditu. Laguntza estatu kide guztientzat egongo da eskuragarri, baina kaltetuenei emango zaie, eta erresilientzia-beharrak handiagoak diren lekuetan.
- **50.000 milioi euroko** osagarria gaur egungo momentuaren eta 2022aren arteko **kohesio-politikaren** egungo programei, REACT-UE ekimen berriaren esparruan. Krisiaren ondorio sozioekonomikoen larritasunaren arabera esleituko da, gazteen langabezia-maila eta estatu kideen oparotasun erlatiboa barne kontuan hartuz.
- **Bidezko Trantsiziorako Funtsa 30.000 milioi euroraino** indartzeko proposamena, estatu kideei neutraltasun klimatikorako trantsizioa azkartzen laguntzeko.
- **15.000 milioi euroko** indartze bat **Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtserako**, lagungarri izan dadin landa-eremuek beharrezko egiturazko aldaketak egin ditzaten Europako Itun Berdearekin bat etorriz, eta

biodibertsitate-estrategia berrietan eta "baserrik mahaira" estrategietan finkatutako helburu handinahiak lor ditzaten.

2. EBko ekonomia berrindartzea inbertsio pribatuak sustatuz (56,3 milioi)

- **Kaudimenari Laguntzeko Tresna** berri batek baliabide pribatuak mobilizatuko ditu, gehien kaltetutako sektore, eskualde eta herrialdeetako enpresa europar bideragarri berehala laguntzeko. 2020tik aurrera funtzionatu ahal izango du eta **26.000 milioi euroko** aurrekontua izango du, 300.000 milioi euro desblokeatzeko sektore ekonomiko guztietako enpresen kaudimenari laguntzeko eta etorkizun garbiago, digital eta erresilienteago baterako prestatzeko.
- **InvestEU** Europako inbertsio-programaren zuzkidura handitzea, **15.300 milioi euroko** mailaraino, EB osoan proiektuetan inbertsio pribatuak mugiarazteko.
- **Inbertsio Estrategikoen Tresna** berri bat, InvestEUren barruan integratua, sektore estrategikoen erresilientzia -bereziki trantsizio ekologiko eta digitalari lotutakoak-, eta barne-merkatuko balio-kate giltzarriak bultzatzera bideratutako 150.000 milioi eurorainoko inbertsioak erakartzeko, *Next Generation EU*ren **15.000 milioi euroko** ekarpenari esker,

3. Krisiaren irakaspenak aplikatzea (38,7 milioi)

- **EU4Health osasun-programa** berri bat, osasun-segurtasuna indartu eta esparru horretan etorkizunean izango diren krisietarako prestatuko gaituena, **7.700 milioi euroko** aurrekontuarekin.
- 2.000 milioi euroko errefortzu bat **rescEU**rentzat, EBko Babes Zibileko Mekanismoarentzat, zeina zabaldu eta indartu egingo baita Batasuna etorkizuneko krisiei aurre egin eta horiei erantzuten gaitzeko.
- **13.500 milioi euroko osagarria Horizonte Europarentzat**, zeina indartu egingo baita osasunaren, erresilientziaren eta trantsizio ekologiko eta digitalaren arloetan bizi-ikerketari finantzatzeko.
- Europako munduko bazkideei **15.500 milioi euro** gehiago ematea **kanpo-ekintzarako**, laguntza humanitaria barne.
- EBko beste programa batzuk indartu egingo dira, etorkizuneko MFF erabat egokitzeko susperraldi premietara eta lehenetsun estrategikoetara.

Zuzkidurak herrialdeka:

Aurrez esleitutako diru-laguntzen zuzkidura: Italia onuradun nagusia izango zen, 81.807 milioirekin, jarraian **Espainia 77.324 milioirekin**, Frantzia (38.772 milioi), Polonia (37.693 milioi) eta Alemania (28.806 milioi).

Maileguei dagokienez, Italia izango litzateke lehen onuraduna ere, 90.938 milioirekin, jarraian **Espainia (63.122 milioi)** eta Polonia (26.146 milioi) gero.

Italia eta Espainia izango lirateke hartzaile nagusiak. Oro har, hegoaldea da onuradun nagusia. Espainiak, Italiak, Portugalek, Greziak eta Ziprek laguntzen% 50 baino gehiago jasotzen dute.

Berreskuratze-planaren oinarri politikoak

Ekonomiaren bultzadak krisiak eragindako epe laburrera kalteak konponduko ditu, etorkizunean epe luzera inbertitzea ahaztu gabe. Horri dagokionez, hauek dira berreskuratze-planaren hiru oinarri politikoak:

1. **Europako Itun Berdea**, EB suspertzeko estrategia gisa: higiezinaren parkea eta azpiegiturak berritzea, eta ekonomia zirkular handiagoa; energia berriztagarrien proiektuak, bereziki eolikoa edo eguzkiarena, eta hidrogeno garbiaren ekonomia Europan; garraio eta logistika garbiak, ibilgailu elektrikoak kargatzeko milioi bat puntu instalatuta, eta trenbideko garraioa eta mugikortasun garbia sustatuta; eta Bidezko Trantsiziorako Funtsa indartzea, birziklatze profesionalari laguntzeko eta enpresei aukera berriak sortzen laguntzeko.
2. **Merkatu bakarra indartzea eta aro digitalera egokitzea**: konektagarritasunean inbertitzea, bereziki 5G sareak ezartzeko; industria eta teknologiaren presentzia sektore estrategikoetan, besteak beste, adimen artifizialean, zibersegurtasunean, superordenagailuetan eta hodeian; datuen ekonomia erreala eraikitzea; eta zibererresilientzia handitzea.
3. Guztiontzako **susperraldi bidezkoa eta inklusiboa**: SURE; Europarako Gaitasunen Agenda eta Hezkuntza Digitalaren Ekintza Plana; gutxieneko soldata bidezkoak eta soldata-gardentasuneko neurri lotesleak; eta zerga-ihesaren aurkako borroka:

Azkenik, suspertzea zalantzarik gabe oinarritzko eskubideetan eta zuzenbide-estatuaren errespetu osoan oinarritu behar da.

EUR billion, 2018 prices

	MFF 2021-2027 (May 2020)	Of which under Next Generation EU
TOTAL MFF	1.850,0	750,0
1. Single Market, Innovation and Digital	210,5	69,8
Horizon Europe	94,4	13,5
InvestEU fund, of which under the Union Recovery plan	31,6	30,3
<i>Investing in the EU economic recovery</i>	15,3	15,3
<i>Strategic Investment Facility (new window)</i>	15,0	15,0
EU Solvency Instrument under EFSI	26,0	26,00
2. Cohesion and Values	984,5	610,0
Cohesion Policy	373,2	50,0
Recovery and Resilience Facility (incl. Technical Support)	560,8	560,0
<i>Of which LOANS</i>	250,0	250,0
<i>Of which GRANTS</i>	310,0	310,0
3. Natural Resources and Environment	402,0	45,0
Common Agricultural Policy	348,3	15,0
<i>Of which Pillar II (Rural Development)</i>	90,0	15,0
Just Transition Fund	40,0	30,0
4. Migration and Border Management	31,1	
5. Resilience, Security and Defence	29,1	9,7
Union Civil Protection Mechanism (rescEU)	3,1	2,0
Health programme	9,4	7,7
6. Neighbourhood and the World	118,2	15,5
Neighbourhood, Development and International Cooperation	86,0	10,5
Humanitarian Aid	14,8	5,0
7. European Public Administration	74,6	

Dokumentazioa:

https://ec.europa.eu/commission/presscorner/detail/es/ip_20_940

2021-2027 urte anitzeko finantza esparruari buruzko Batzordearen maiatzaren 27ko proposamenaren laburpena¹:

Batzordearen egungo proposamenak, 1.1 bilioi euroko EBren aurrekontukoa, partida batzuk murrizten ditu 2018ko proposamenarekiko (kohesioa, defentsa, ikerketa), baina, hala ere, programa horiek Berreskuratze Funtsaren finantzaketa gehigarria lortuko lukete, 750.000 milioi eurokoa. Funts hori 2021etik 2024ra egongo da martxan, eta *Next Generation EU* gisa ezagutuko da.

Kohesio-politikaren programek 323.000 milioi euro izango lituzkete zazpi urterako (2018ko proposamenean 330.000 milioi euro izan zen proposamena), baina *Next Generation EU* bidez 50.000 milioi euroko funtsen errenergia lortuko lukete.

¹Ikusi zifrekin banakatutako taula COM(2020) 442 Komunikazioaren 20. orrialdean:

https://ec.europa.eu/info/sites/info/files/about_the_european_commission/eu_budget/1_en_act_part1_v9.pdf

Era berean, Batzordeak hasieran 86.000 milioi proposatu zituen Horizon Europe programarako. Orain, 81.000 milioi euro baino gutxiago proposatu ditu ikerketa eta berrikuntza programarako, baina 13.500 milioi euroko gehigarria.

Nekazaritza Politika Bateratuaren gastua 2018an proposatutako 324.000 milioi eurotik 333.000 milioi eurora igoko litzateke, gehi landa-garapenerako *mailegatutako* aparteko 15.000 milioi euro.

Ingurumenerako eta klima-ekintzarako finantzaketa ere handituko litzateke, Bidezko Trantsiziorako Funtzak 40.000 milioi euroko zenbatekoa izango luke (10.000 milioi aurrekontutik eta 30.000 milioi *Next Generation EU*tik). Aurreko proposamenean, Funtzak 7.500 milioi euro zituen.

Kohesio-politikari dagokionez, Batzordeak **REACT-EU ekimen berri** bat proposatzen du, kohesiorako laguntza areagotzeko eta larrialdietako neurrien eta epe luzeagoko neurrien arteko aldea ixten laguntzeko. REACT-EUren bidez, Batzordeak proposatzen du 55.000 milioi euro gehiago ematea kohesio-politikarako hemendik 2022ra: *Next Generation EU*ren 50.000 milioi euro 2021 eta 2022an, eta 5.000 milioi euro jada 2020tik, egungo finantza-esparrua egokituta.

Finantzaketa gehigarria krisiaren eragin sozioekonomikoaren larritasunaren arabera esleituko da, gazteen langabezia-maila eta estatu kideen oparotasun erlatiboa barne kontuan hartuz. Konpromiso gehigarriak programen zuzenketen bidez edo estatu kideek aurkeztu eta Batzordeak onartutako programa espezifiko berri baten bidez gauzatuko dira.

Finantzaketak sektore garrantzitsuenetan funtsezko konponketa-ekintzak lagunduko ditu susperraldi berde, digital eta erresilienterako. Horrek barne hartuko ditu lan-merkatua berrindartzeko inbertsioak -baita kontrataziorako diru-laguntzen bidez-, gazteen enplegurako neurriak, osasun-arretarako sistemei sostengua eta enpresa txiki eta ertainentzako giza kapitalaren hornidura. Laguntza sektore ekonomiko guztietan egongo da eskuragarri, turismoa eta kultura barne, bai eta trantsizio berde eta digitaletan funtsezko inbertsioak egiteko ere, etorkizuneko kohesio-programetan jada planifikatutako inbertsioa handituz. Baliabide gehigarri horien zati bat elikagai eta premia biziko ondasunik ez duten pertsoneri laguntzeko ere erabili ahal izango da.

Litekeena da krisiak bereziki gazteak kaltetzea, eta, beraz, gazteen langabezia-tasa EBko batez bestekoa baino handiagoa duten estatu kideek beren baliabideen gutxienez % 15 programatu beharko lukete Europako Gizarte Funtz Plusetik, gazteei laguntza emateko. Krisiak ahulenengan izan dezakeen eragina ikusita, Batzordeak proposatu du Europako Gizarte Funtz Plusaren gastu osoaren % 5 gutxienez hurrei pobreziatik ateratzen laguntzeko erabiltzea.

Bestalde, estatu kideei eta behar handiena duten eskualdeei behar besteko babesa bermatzeko, Batzordeak berrikusitako proposamenean 2024rako kohesiorako esleipen nazionalak berrikustea aurreikusten dute, eskuragarri dauden azken estatistikak kontuan hartuta. Berrikuspen horrek 10.000 milioi euro arteko doikuntzak baino ez ditu ekarriko estatu kide guztientzat.



Bidezko Trantsiziorako Funtsari dagokionez, Batzordeak 30.000 milioi euroko finantzaketa gehigarria proposatu du, hau da, Bidezko Trantsiziorako Funtsaren guztizkoa 40.000 milioi eurora igo du. Funts hori gehien kaltetutako eskualdeetan neutraltasun klimatikorako trantsizioaren eragin sozioekonomikoak arintzeko erabiliko da, adibidez, langileen birkualifikazioa babestuz, enpresa txiki eta ertainei aukera ekonomiko berriak sortzen lagunduz eta energia garbi baterako eta ekonomia zirkularrerako trantsizioan inbertituz.

Batzordeak proposatu du **Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtserako** 15.000 milioi euroko aurrekontua indartzea, 90.013 euroraino, nekazariei eta landa-eremuei Europako Itun Berdea ezartzeko beharrezkoak diren egiturazko aldaketak egiten laguntzeko, eta, bereziki, Biodibertsitatearen eta Baserritik Mahaira estrategia berrien asmo handiko helburuak lortzeko.

InvestEUri dagokionez, Batzordeak 15.300 milioi eurora igotzea proposatu du. Horrek 240.000 milioi euro baino gehiagoko inbertsioa erakar lezake.

EU4Health programa independente bat ere proposatzen du, aurrean ditugun osasun-erronkei berariazko laguntza emateko. Proposamen horren arabera, programa berrirako finantziazioa 9.400 milioi eurokoa izango litzateke. Programa berriak Europar Batasunak etorkizuneko osasun-krisien aurrean azkar erreakzionatzeko beharrezkoak diren gaitasun kritikoak izango dituela bermatzen lagunduko du. Europar Batasunean osasun-krisiei aurrea hartzeko, prestatzeko eta erantzuteko esparru integral bat sortzea izango da programaren helburua.

RescEU EBko babes zibileko Mekanismorako finantza-esleipena 3.100 milioi eurora handituko da, eta larrialdiei erantzuteko azpiegituretan, garraio-gaitasunean eta larrialdiei laguntzeko ekipoetan inbertsioak finantzatuko dira. Eguneratutako rescEU behar besteko gaitasuna eta azpiegitura logistikoa emango dio Batasunari hainbat larrialdi-motari erantzuteko, osasun-arlokoak barne, EU4Health programa berria osatuz.

Europako I+G+B Programaren hurrengo belaunaldiari dagokionez, **Horizonte Europa**, 94.400 milioi eurokoa izango litzateke, Europak osasunari eta klimari lotutako ikerketa-eta berrikuntza-jarduerei ematen dien laguntza handitzeko.

Bestalde, **Auzotasun, Garapen eta Nazioarteko Lankidetzarako Tresna** 86.000 milioi eurokoa izango litzateke hirugarren herrialdeei pandemiaren aurkako ahaleginetan laguntzeko, Nazio Batuen eta Osasunaren Mundu Erakundearen nazioarteko kideekin lankidetzan. Egungo finantza-esparrura berariaz doituta, laguntza gehigarriko 1.000 milioi euro eman ahalgo dira 2020an.

Halaber, 5.000 milioi euro gehiago proposatu dituzte **laguntza humanitarioko** tresnarako.

Gainera, beharrezkoa da beste programa batzuk indartzea, haien zeregina bete ahal dezaten, EB erresilienteagoa izan dadin eta pandemiak eta haren ondorioek areagotu dituzten erronkei aurre egin ahal izateko. Hauek dira:

EBren ziberdefentsa bultzatzea eta trantsizio digitalari laguntzea, **Europa Digitala Programa** 8.200 milioi euroko aurrekontuarekin hornituz.

Eguneratutako eta errendimendu handiko garraio-azpiegitura batean inbertitzea mugaz gaindiko konexioak errazteko, 1.500 milioi euro gehiagorekin **Europa Konektatu Mekanismo** (guztira 12.884 milioi MEC Garraioetarako).

Susperraldia bultzatuko duen **merkatu bakarraren** funtzionamendu egokirako baldintzak sortzea, Merkatu Bakarraren Programarako eta fiskalitate- eta aduana-arloetako lankidetzak babesten duten programetarako proposatutako aurrekontuei eutsiz, 3.700 milioi euro, 239 milioi euro eta 843 milioi euro, hurrenez hurren.

Erasmus Pluserako 3.400 milioi euro gehiago inbertitzea gazterian, hau da, programa osoa 24.600 milioi eurora igotzea, bai eta kultura- eta sormen-sektoreetan ere, **Europa Creativaren** aurrekontua 1.500 milioi eurora igota.

Nekazaritzako elikagaien eta arrantzaren sektoreen erresilientzia indartzea eta krisia kudeatzeko beharrezko irismena ematea, 4.000 milioi euro gehigarriren bidez **Nekazaritza Politika Bateraturako** eta 500 milioi euroren bidez **Europako Itsas eta Arrantza Funtserako** (biak 355.182 milioi euro).

Kanpoko mugak babesteko eta migrazio- eta asilo-politikan lankidetzak areagotzea, **Asilo eta Migrazio Funtsa** eta Mugak Kudeatzeko Funtse Integratua indartuz, 22.000 milioi euroko maila lortzeko. Barne Segurtasunerako Funtse 2.200 milioi euro eta Europako Defentsa Funtse 8.000 milioi euro esleitu dizkiote.

Baliabide propio berriak

*Next Generation EU*ren eskalak eta haren diseinuak EBk aurre egin beharreko erronken garrantzia eta premia islatzen dute. Laguntza gehigarria finantzatzeko ekarpen nazionalak handitzeak aurrekontu nazionalen gaineko presioa are gehiago handituko luke. Ezohiko egoera horietan, guztiz justifikatuta dago gastua nabarmen eta egoki handitzea ahalbidetuko duen finantzaketa-mekanismo bat erabiltzea, zor nazionalak handitu gabe, egungo krisiarekin bat datorren eskala bateko elkartasun-adierazpen gisa.

Bildutako funtsak 2027tik aurrera ordainduko dira, eta 2058rako beranduenez. Horrek estatu kideen aurrekontuen gaineko presioa arintzen lagunduko du, finantza publikoak presio oso larriaren pean dauden une honetan, eta, aldi berean, zorraren jaulkipen horretatik eratorritako betebeharrak guztiak EBren etorkizuneko aurrekontuen kargura beteko direla bermatuko du. Merkatuetan bildutako finantzaketa itzultzea errazteko eta aurrekontu nazionalen gaineko presioa murrizten laguntzeko, **Batzordeak baliabide propio gehigarri berriak proposatuko** ditu hurrengo programazio-aldiaren ondoren, ohiko baliabide propioak osatzeko.

Batzordearen proposamenean egindako aldaketa garrantzitsu bat estatu kide batzuen ekarpenen zuzenketei buruzko ikuspegia da (herrialde batzuek, Herbehereek adibidez, Erkidegoko diru-kutxari ematen dizkioten kopuruen murrizketak). Batzordeak atzera egin du epe laburrean ezabatzeko bere planetan: "Batzordearen iritziz, zuzenketa guztiak pixkanaka ezabatuz gero, urte anitzeko finantza-esparrua orekatuagoa izango da. Hala



ere, gaur egungo egoeran, COVID-19ren pandemiaren eragin ekonomikoa dela eta, beherapenak ezabatzeak neurritz kanpoko igoerak ekarriko lituzke zenbait estatu kiderentzat 2021-2027an egin beharreko ekarpenetan. Hori saihesteko, zuzenketak aurreikusitakoa baino epe luzeagoan ezaba daitezke.

Baliabide propio berrien aukerek Emisioen Merkataritza Sistemaren oinarritutako baliabide propioa izan lezakete, itsasoko eta hegazkingintzako sektoreetara hedatzeko aukera barne, bai eta mugan karbonoa doitzeko mekanismo bat ere. Baliabide propio horrek 10.000 milioi euro inguruko diru-sarrerak eragin ditzake EBren aurrekonturako, karbonoaren prezioaren bilakaeraren eta sistema beste sektore batzuetara hedatzearen arabera.

Etekin handiak lortzen dituzten enpresek baliabide baten bidez lagundu dezakete, zeinek bere diseinuaren arabera, 10.000 milioi euro inguru sor ditzake urtean. Halaber, 750 milioi eurotik gorako fakturazioa duten enpresei aplikatutako zerga digitalak urtean 1.300 milioi euro ere sor ditzake EBren aurrekonturako.

Baliabide propio berri horiek *Next Generation EUrako* merkatuetan bildutako finantzaketaren itzulketa eta interesen ordainketa finantzatzen lagun lezakete.

EBk bere finantza-betebeharrak bete ahal izateko baliabide propioen mugen azpiko marjina nahikoa gordetze aldera, baita testuinguru ekonomiko kaltegarriaren ere, baliabide propioen muga² modu iraunkorrean EBko errenta nazional gordinaren % 1,46ra igotzea proposatzen da konpromisoetarako, eta % 1,40ra ordainketetarako (gaur egun muga % 1,26 eta % 1,20an dago, hurrenez hurren).

Azkenik, Batzordeak egoeraren urgentzia eta garaiz jardutearen garrantzia azpimarratu ditu, eta Europako buruzagiei datorren uztailean finantza pakete berriaren inguruan akordio politiko batera iristeko eskatu die. EBko estatuburuak eta gobernuburuak ekainaren 19an bilduko dira.

Proposamenaren testuingurua eta balorazioa

Europako Batzordeak MFF 2021-2027ri buruz egindako hasierako proposamena 2018ko maiatzekoa da. Orduetik, testua gogor negoziatu da Kontseiluaren baitan, eta Finlandiako Lehendakariak proposamen berri bat egin zuen 2019an, eta beste bat Europar Batasuneko Kontseiluko presidentek, Charles Michelek, joan den otsailean, estatu kideen blokeen artean oso kontrajarriak diren jarrerak hurbiltzeko asmoz. Alde batetik, Europa hegoaldeko herrialdeak, gastuari dagokionez hedagarriagoak direnak, eta, bestetik, "Frugal"en taldea, Europako aurrekontu soilago baten lagunak, EBko RNBren % 1etik beherakoa.

Covidaren krisialdia taula iraultzea suposatzen du, eta hainbat herrialdek argitaratutako zenbait posizio-dokumentu bultzatu ditu, EBn susperraldi ekonomikoari buruz eta

² 2014-2020rako adostutako arauen arabera, EBk ordainketa-baliabide propioak handitu ditzake, **estatu kide guztietako errenta nazional gordinen (RNB) baturaren % 1,20ko mugaraino. Konpromisoetarako kredituen guztizko zenbatekoak - EBk hartutako betebeharrak juridikoak - ezin du gainditu EBko RNBren % 1,26.**

Europak susperraldi horretarako izan beharko lukeen dimentsioari eta formari buruz zer jarrera duten adieraziz.

Martxoaren 25ean, Belgikak, Frantziak, Greziak, Irlandak, Italiak, Luxenburgok, Portugalek, Esloveniak eta Espainiak gutun bateratu bat bidali zioten Charles Michel Europar Batasuneko Kontseiluko presidenteari, zor bateratuko tresna baten alde egiteko³.

Espainiak non-paper bat aurkeztu zuen (eztabaidarako lan-dokumentu ez ofiziala), apirilaren 19an, eta honako hau proposatzen zuen: bilioi bat eta bilioi eta erdi euro arteko funts bat sortzea pandemiaren ostean susperraldia bilatzeko. Funts hori 2021eko urtarrilaren 1ean egongo litzateke eskuragarri, eta bi eta hiru urte artean iraungo luke, Europako betiko zorraren bidez finantzatuta. Proposamenaren arabera, funts horretako partidak itzuli beharrik gabeko transferentzia zuzenen bidez egin behar zitzaizkien herrialdeei (koronabirusak eragiten dien moduari lotuta: kaltetutako biztanleriaren ehunekoa, BPGren beherakada edo langabeziaren igoera), eta ez maileguren bidez, herrialdeen zor publikoaren ratioa handitu ez dadin. Betiko zorra denez, interesak itzuli besterik ez litzateke egin behar. Espainiaren proposamenak, halaber, interes horien ordainketa mugetako karbonoaren, barne-merkatuaren edo CO2 isurpenen gaineko zergen bidez egitea proposatzen zuen. Zorra inplizituki mutualizatzea erakundeen erantzukizuna izango litzateke, eta ez estatu kideena. Funts handi hori urte anitzeko finantza-esparru berriaren parte izan liteke.

Gogora ekarri nahi dugu Italiak, Frantziak, Portugalek, Greziak eta Ziprek Europako Batzordeko presidente Ursula von der Leyentzat sinatutako gutuna, etorkizuneko EBko Berreskuratze Funtsari buruzko eskaerak zehazten zituena: "Funtsak zati handi bat eman behar du diru-laguntzetan".

Frantzia-Alemanien dokumentua, maiatzaren 18koa, transferentzietan 500.000 milioi euroko berreskuratze-funts baten alde egiten duena; eta herrialde "frugalek" Frantzia-Alemania dokumentuaren aurkako erreakzioa, Austriak, Danimarkak, Suediak eta Herbehereek sinatutako testu batean, zeinetan "maileguengatik mailegutzen dugu" defendatzen dutena, Frantzia-Alemania diru-laguntzen proposamenari erreferentzia eginez.

Frugal gisa bataiatutako herrialdeek (Herbehereak, Austria, Suedia eta Danimarka), maiatzaren 23an, berreskuratze-funts europarraren proposamen bat aurkeztu zuten. Bertan, funtsa aldi baterakoa izatea eskatu zuten, maileguren bidez, eta ez zekartzaten ez zorraren mutualizaziorik, ez estatu kideek Erkidegoko aurrekontuari egindako ekarpenen gehikuntzarik. Lau herrialdeen non-paper honek Frantzia-Alemania proposamenari erantzuten zion.

Bestalde, Europako eskualdeek ere behin eta berriz adierazi dute anbizio handiko aurrekontu komunitario baten eta berreskuratze-plan baten alde egin dutela, bai bakarka, Eusko Jaurlaritzaren kasuan bezala, **EB suspertzeko plan baterako euskal ikuspegian**, bai hainbat sareren eta posizio-dokumentuen bidez (CRPM, Vanguard Initiative, ERRIN, etab.).

³ <https://www.lamoncloa.gob.es/presidente/actividades/Documents/2020/250320-Ingles.pdf>

Merkelek eta Macronek maiatzaren 18an sinatutako dokumentua inflexio-puntua izan da berreskuratze-planaren eta EBren aurrekontuaren inguruko negoziazioetan. Dokumentu hori gabe, ziur asko, ezingo litzateke ulertu Batzordeak maiatzaren 27an egindako asmo handiko proposamena. Gogorarazi nahi dugu bi agintariek 500 000 milioiko balioa izango zuen berreskuratze-funts bat sortzearen alde egin zutela krisiak gehien kaltetutako eskualde eta sektoreentzat, EBko programen bidezko transferentzia eran. Proposamen hori Europako Batzordearen MFF + *Next Generation UE* proposamenean gauzatzen da orain.

Batzordeak lehenbailehen akordio batera iristeko premia azpimarratu du orain, eta uztailen ados jartzeko eskatu dio Kontseiluari. Epe hori betetzea zaila izango bada ere, egia esan, Frantziak eta, batez ere, Alemaniak anbizio handiko errekonstruzio plan batekiko konpromisoa sinatu izanak herrialde uzturenekin akordioa lortzeko bidea errazten du. Batzordeak "lasaigarriren" bat eskaini die dagoeneko, eta horrela atzerapen bat izango dute Europako aurrekontuari egindako ekarpenen beharpenak kentzeko, lehenbailehen ezabatu nahi baitziren.

Mario Monti komisario ohiak Angela Merkelek erakutsitako ikuspegi zabala eta ahalegina nabarmendu du, proposamen honekin⁴, "boto-emaile kontsebadoreenak gogaitzea onartu du, Frantziak eta hegoaldeko herrialdeek adierazitako beharretara hurbilduz".

Aipatzekoa da, halaber, *Next Generation EU* merkatuetan dituen finantzaketa-kostuak 17.400 milioi eurokoak direla 2021-2027 MFFan, eta kopuru horrek gainditu egiten du Europa Konektatu Mekanismoa (12.884 milioi) edo Europa Digitala Programa (8.194 milioi) bezalako programa komunitarioena.

Batzordeak maiatzaren 27ko proposamenean dioen bezala, "Ezohiko egoera horietan, guztiz justifikatuta dago gastua nabarmen eta egoki handitzea ekarriko lukeen finantzaketa-mekanismo bat erabiltzea, zor nazionalak handitu gabe, egungo krisiarekin bat datorren elkartasun-adierazpen gisa".

Orain, Erkidegoko laguntzari lotutako baldintzen xehetasunak ezagutzea falta dira. Zuzeneko diru-laguntzetan Espainiarentzat kalkulaturako laguntza garbia 34.000 milioikoa da. Laguntza hori, funtsean, hiru bidetatik bideratuko da: Erresilientzia eta Berreskuratze Mekanismoa (antzeko beste bat proposatu zuen Batzordeak 2018ko maiatzeko Finantza Esparruaren jatorrizko proposamenean, 'Erreforme Laguntzeko Programa' gisa), Bidezko Trantsizioko Mekanismoa (geroago ere proposatu zen), eta Europako kohesio-politikaren berehalako aurrekontu-errefortzua hurrengo bi urteetarako.

Berehalako laguntza, funtsean, kohesio-politika europarraren bidez iritsiko da; izan ere, 50.000 milioi gehiago eman zaizkio (zazpi urterako aurrekontu osoaren seiren bat) 2020, 2021 eta 2022 urteetarako. Estatuak beren programa eragileak aldatu beharko dituzte funts gehigarri horiek xurgatzeko neurriak sartzeko, eta, beraz, Euskal Autonomia Erkidegoko programa eragileak berriro programatzea espero da.

⁴ Alemaniak Next Generation EU erakundeari egin beharreko finantza-ekarpen garbia 103.000 milioi eurokoa dela kalkulatu da.

Erresilientzia eta Berreskurapenerako Mekanismoaren (funts horien zati handiena) eta Bidezko Trantsiziorako Mekanismoaren bidezko finantza-laguntza gehiago dira epe ertainera; izan ere, 2021era arte ez dira indarrean jarriko, eta estatuek Europako Batzordearekin zer erreforma eta trantsizio energetikorako zer neurri aplikatuko diren zehazteko neurri espezifikoak aurkeztu eta adostu ondoren gauzatuko dira. Batzordeak Erreformei Laguntzeko Programa proposamenean proposatutako ikuspegiari jarraitzen badio, eta hori oso litekeena da, ordainketak hainbat zatitan egingo dira, eta egiturazko erreforma batzuk eta hainbat eremutan inbertsio estrategikoak behar bezala diseinatu eta abian jartzeko baldintzapean egongo dira. Erreforma eta inbertsio horien oinarria Europako Sei hileko herrialde bakoitzeko Gomendio Espezifikoak izango dira.